



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, SANTURTZIKO UDALAREN 2006-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Santurtziko Udalaren 2006ko ekitaldiaren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Udalaren fiskalizazio txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere. HKEEren lanak Udala bera ez ezik, bere Erakunde Autonomoak ere besarkatzen ditu.

Legezketasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Aurrekontuaren alorrean, Erakunde Fiskalizatzaileak adierazi du arautegia urratzen dela Aurrekontua Udalbatzak onesteko ez aurkeztearekin. Halaber, ez betetzetat hartu da horretarako eskumenik ez duen atalak aurrekontuaren hainbat aldaketa onestea.

Langileriari dagokionez, HKEEk adierazi du Udalak aldi-baterako zenbait kontratu gauzatzerakoan ez dituela berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatu. Berebat, pentsioen sistema osagarrietarako ekarpenak ez dira indarreko arautegia betez gauzatu.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, txostenak adierazi du hiru kasutan ez dela lizitazioa Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu; beste batean, aurrekontua nabarmen areagotu da eta beste bitan, gauzatutako aurrekontuaren gaineko aldaketak ez ziren behar bezala izapidetu.

Diru-laguntzen alorrean, HKEEk adierazi du 61 mila euroko diru-laguntzak zuzenean eman direla, emakida berdintasun, publikitate eta objektibotasun printzipioetara meneratu gabe. Ordea, diru-laguntza hauek arautzen dituzten hitzarmenak etenda utzi dira 2007an Diru-laguntzen Lege Orokorrari egokitzea izapidetzeko.



Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du kontuaren aurkezpen eta edukiari dagokionez, bi salbuespen egin dituela: Bata, ibilgetuko gaien ondasun-zerrendarik ez izateagatik; eta bestea, Diruzaintza Geldikina 2,4 milioi euroan gehitzea eragin duten kontabilitateko hainbat zuzenketa egiteagatik, 11,3 milioi euroan jarri dutenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Amaitzeko, finantza egoerari dagokionez esan behar dugu, zorpetzea murriztu egin dela azken hiru ekitaldietan eta sortutako aurrezki garbiak 2004 eta 2006ko ekitaldietan izandako inbertsio bolumenaren parekoari eustea bideratu duela, kanpoko finantzaketa iturrietara jo beharrik izan gabe.